



ZALDI ERO

Beñat Sarasola

◆ IDAZLEA

## Eta gure CTA?

Udan irakurritakoen artean, badago liburu bat atentzioa eman didana eta lagun artean franko aipatu duguna. *CT o la Cultura de la Transición. Crítica a 35 años de cultura española* du izenburu eta saiakera bat da, hainbat autorek osatu artikulu bilduma. Ez da maisulan bat, ez da ziur aski XXI. mendeko saiakera goren artean kokatuko, aski gorabeheratsua da, zabarraziz ere ailega daiteke momenturen batean, oportunistak ere bai autoreren bati dagokionez (Ignacio Echevarria), haatik, indar kritikoa handia du. Laburki esatearren, Espainiako kultura hegemonikori emandako zuzeneko ukaldia da.

Espainian frankismo ondorenean gorpuztutako kulturari deitzen diote CTA eta azalpen-eredu bikaina dela ohartzen da irakurlea liburuarekin hasi bezain pronto. Esan gabe doa, ez da erraza CT delakoa zer den definitzea orokorkeriatan erori gabe, baina uste dut azken urteotan Espainiako kultura jarraitu duen edonork susma dezakeela, senzez edo, zer izan daitekeen. Prisa taldeak hegemonia mediatikoa eduki duen gisara, hark sustatu kultura litzateke CTA neurri handi batean. Demagun, Victor Manuel, Ana Belén musikan, Luis García Montero, Antonio Muñoz Molina literaturan, itun eta kontsentsuaren kultura, bipartidismoa, Gregorio Peces-Barba intelektual gisa, Moncloako Itunak ekonomian, SGAE lobby gisa, Almodovar zinean. Besteak beste, jakina. Gehiago ere bada-eta, izan ere. Amador Fernández-Savaterrek dio CTA funtsean arazoei eta eztabaidari itzuri egiten dion kultura dela, balizko kontsentsuan mozorrotzen bada ere. Despolitizatze moduko bat, non parametro oso estu batean kokatzen diren diskurtsoak (Trantsizioa, merkatu-ekonomia, monarkia, eta abar)


onartzen diren soilik, halako aire neutral-apolitikoarekin onartu ere. Eta noski, borroka antiterroristaren matraka beti prest lerrotik irteten den ezein eztabaida berehalakoan amaitzeko. Nago ezagun egingo zaigula gehienoi.

Neurri batean, belaunaldi-ebaketa bat irudikatzen du liburuak. Trantsizioarekin berarekin eta haren kulturarekin sakonki kritikoa den belaunaldi berri bat aurkezten du, zeinak M15aren mugimenduan azalarazi duen bere asebetea.

Ñabardurak ñabardura, meritu handiko ariketa autokritikoa iruditzen zait liburuak. Aski errotikoa den kritika du mahaigaineratzen, eta dakigunez, modu horretan baizik ezin du ezein kulturak aurrera egin. Alta, ezin izan dut ekidin pentsatzea nola jasoko litzatekeen gurean tamainako (auto)kritika saioa –besteren behaztopa norbere herrena baino errazago atzematen baita eskuarki–.

Alegia, nola erantzungo genukeen euskal kultura hegemonikoaren sakoneko kritika egingo bagenu. Eta badago egon, zer kritikatu. Oro har, inpresioa dut

gurean ere gero eta bide estua-goetatik ibili garela 1980etatik aurrera. Beti dagoela ideologia abertzaleki zuzena ildotik irteten dena birbideratzeko gertu. Eta gu ere kontent txintik esan gabe arrastoan sar gaitzen ametzeko. Ez da ordea beti hala izan. Berriki topo egin dudak artikulu bat jarriko dut adibide soiltzat. 1977an agertu zen aldizkari honetan bertan, *Baietz astea gaizkei bukatu* atalean, Koldo Izagirrek eta Ramon Saizarbitoriak sinaturik. Haren izenburua, ezin esanguratsua: “Oteizak txorradak esateko makina inbentatu du”. Soberan da gogoraraztea Oteiza zela garai hartan gure intelektual gorenetakoa. Zaila zait imajinatzen gaur egun halakoaren parekorik. ■



Antton Olariaga

